

EKINTZA PLANERAKO KONPROMISOEN PROPOSAMENAK

OGP KONPROMISOAK - ZER ESKATZEN DU?

OGPren ekintza-planetan normalean 3-5 konpromiso sartzen dira, bi urteko epean garatzeko. Konpromiso horiek zehazteko, kontuan hartu behar da zelan ebaluatuko diren ondoren planaren irismena eta eragina.

OGPren arabera, honako hauek dira konpromisoak zehaztean ohikoenak izaten diren akatsak:

- Definizio zehaztugabea – jarraipena egiteko lausoegia edo talde sustatzaileak kudeatzen ez duen aurretiazko ekintza baten menpekoea
- Esangurarik gabea – egungo arau-esparruaren aurka doazen, errepikakorrak diren edo herrialde / eskualdeko testuingurua islatzen ez dutenak azpimarratzen ditu
- Gobernantza – ez dira ezarpeneko arduraduna eta beharrezko koordinazio-mekanismoak zehazten
- Gaitasuna – baliabideak edo gaitasun teknikoa ez dira aski
- Lidergotza – politikarien babesa ez da nahikoa

Ondorioz, konpromiso zehatzak, bi urtetan garatzeko modukoak eta eraldatzeko gaitasuna dutenak zehaztu behar dira. Konpromiso horiek zehaztu eta ezartzeko, gainera, lankidetzan aritu beharko dugu gizarte zibilarekin, eta koordinazioa ezarri hiru erakunde-mailetan, gobernu irekiaren arabera erantzun dakien erronka zehatzei. Konpromisoak ez dira zertan berriak edo hasi gabeak izan.

GURE PLANEKO KONPROMISOAK ZEHAZTEKO ABIAPUNTUA

OGPren nazio azpiko programara igorritako hautagaitzan hainbat alderdi esanguratsu jorratu genituen, konpromisoak zehazteko:

1. Ekintza-planean sartutako konpromiso-motak

Bi konpromiso-mota aipatzen ziren: horizontalak eta bertikalak.

- *Konpromiso horizontalak*, gure ekintzen zeharkakotasuna xede dutenak. Konpromiso berak gobernu-maila beretarako, askotariko ñabardurak eta ikusmoldeak txertatuz esperimentaziorako, partekatutako balio batzuk abiapuntu izanik: inplikazioa eta lankidetzeta.
- *Konpromiso bertikalak*, lehentasunak eta ereduak ezartzea xede dutenak. Hiru erakunde-mailak sakontasun handiko ekintza eta prozesu egituratuak adostu eta garatuko dituzte, gobernu irekiaren eredu erkidea finkatuko dutenak.

Ekintza Planak bi motatako konpromisoak jaso beharko lituzke.

2. Gobernu irekiko erronkak, abiapuntuko egoera diagnostikatu ondoren ezarriak

Erronkak bost eduki-multzotan identifikatu ziren:

- *Gardentasuna eta datu irekiak:*
 - datuak irekitzea, zerbitzu publikoak hobetzen lagun gaitzan
 - datuak linked data bidez lotzea
 - gure eredua bideratzea, datuak irekitzean ez daitezen erantzun soilik administrazioen aukerak, baizik eta baita herritarren eskariak eta negozio-aukerak ere
- *Kontuak ematea*
 - Bistaratze-tresna erkideak: ulermen handiagoa eta erabilera kritikoa
- *Herritarren parte-hartzea eta sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzak*
 - irakurtzeko errazak diren tresnak ezarri eta hizkuntza sinpletzea
 - gure organoen jardura mapatu eta aztertzea, arrazionalizatzeko
 - egitura partaideetan modu eraginkorrago eta lankideagoan lan egiteko tresnak sartzea
- *Garapen teknologikoa eta berrikuntza*
 - herritarren karpeta: zerbitzu integratua eta erakundeartekoa, sarrerako ate hurbil eta zabala izan dadin herritar guztientzat
- *Integritatea*
 - herritarren bermerako mekanismoak, administrazioaren kanpokoak
 - arriskuak prebenitzeko tresnak, gehiago eskatzen digun ekintza orok ekarpenak egin ditzan

3. Ekimen berritzaileak

Eraldatzeko gaitasunaren adibidetzat aipatu ziren honako ekimen hauek:

- *Open Big-Data Euskadi*, gure open data eboluzionarazteko erakundearteko big data baterantz.
- *“Open Eskola”* - ikasteko espazio irekia, irekierarako eta herritarrak inplikatzeko gune fisikoak sustatzeko. Horiek saiakuntza-laborategi bihurtzeko beharrianak arakatzea.
- *Jardun publikoaren esparruak eta prozesuak mapatzea, ustelkeria-arriskua gutxitzeko.*
- *Gobernantza esperimentaleko jardunbideak beste erakunde batzuei doitzeko*, herritarren parte-hartzea uztartuz eta plangintza estrategiko eta etorkizun-eraikuntza partekatuekin lotuz.

Proposamenaren edukiaz gain, **kontuan hartu behar da OGPK zer lortu nahi duen** (konpromisoen emaitzak *erabilgarriak, erabiltzeko modukoak eta erabiliak* izan behar dira)

4. OGP irizpideak

- *Zehatza eta neurtzeko modukoa*
- *Esanguratsua, OGPren balioei ekarpenak egiteko*
- *Eragina duena, handizalea dena eta erronka bat ebatzea xede duena*

PLANAREN KONPROMISOAK ZEHAZTEA

Garrantzitsua da konpromisoetara hurbiltzeko ariketa bat egitea, berariaz partekatu dezagun:

- Non dauden elkarguneak eta desadostasunak herritarren ikuspegiaren eta erakundeen ikuspegiaren artean
- Nola gauzatu dezakegun erakundeen artean banatutako lidergotza
- Zer lortu nahi dugun konpromisoen bidez

Horrenbestez, aurreko puntuan deskribatutakoa kontuan hartuta **gutxienez konpromiso bat** bete dezazuela eskatu nahi dizuegu. Nazio azpiko beste programa batzuetako konpromisoen adibideak ikus ditzakezue agiri honen amaieran dagoen ERANSKINEAN:

- 1.** Konpromisoaren deskribapena (zertan datzan, xedeak, emaitzak, epeak...)

- 2.** Nork gidatu beharko luke gure planaren esparruan? Zer dela eta?

3. Noren laguntza beharko genuke? Aipatu erakunde publikoak eta pribatuak

4. Konpromiso horizontala edo bertikala izan behar da? Zer dela eta?

Konpromisoa zehaztutakoan, erantzun itzazu honako galdera hauek (zure deskribapena are gehiago zehazten lagun diezazukete):

Konpromisoa zehatza eta neurtzeko modukoa da (*adierazi zein mailatan betetzen den*)

Altua (Konpromisoak berariaz ezartzen ditu jarduera argiak eta egiaztatzeko modukoak, bai eta entregatu beharreko produktuak ere, neurtzeko modukoak direnak, konpromisoaren helburua lortzeko.)

Ertaina (Konpromisoak objektiboki egiazta daitekeen jarduera bat deskribatzen du, eta entregatu beharreko produktuak jasotzen ditu, baina produktu horiek ezin dira argi eta garbi neurtu edo ez dira esanguratsuak konpromisoaren helburua betetzeko).

Baxua (Konpromisoak egiaztatzeko moduan garatu daitekeen jarduera bat deskribatzen du, baina ez dago argi zein jarduera planteatu diren eta zeintzuk izango liratekeen entregatu beharreko produktuak).

Hutsala (Konpromisoak ez du jasotzen neurtzeko moduko jarduerarik, entregatzeko produkturik edo tarteko emaitzarik).

Konpromisoaren esangura – zein ekarpen egiten dion OGPren balioei (*bai edo ez erantzun*)

Informazioa eskuratzea: Jaurlaritzak informazio gehiago argitaratuko du edo argitaratzen duen informazioaren kalitatea hobetuko du?

Herritarren parte-hartzea: Jaurlaritzak jendeak erabakiak hartzeko orduan eragiteko dituen aukerak edo gaitasunak sortu edo hobetuko ditu?

Kontuak ematea: Jaurlaritzak bere funtzionarioek kontuak ematen dituztela bermatzeko aukerak sortu edo hobetuko ditu?

Gardentasuna bermatzeko eta kontuak emateko teknologia eta berrikuntza: Berrikuntza teknologikoak erabiliko dira beste hiru balioetakoren batekin batera gardentasuna sustatu edo kontuak emateko?

Eragina – eraldatzaileak izan behar dira (*erantzun galdera hauek*)

Arazoa: Zein da konpromisoak jorratzen duen arazo sozial, ekonomiko, politiko edo ingurumenekoa?

Xedea: Zein xede planteatzen ditu konpromisoak? Konpromisoaren xedeak nola laguntzen du arazoa konpontzen?

Balorazioa: Idatzita dagoen bezala bete-betean ezartzen bada, zein eragin izan lezake ikuspegi horrek arazoan?

KONPROMISO NAGUSIAK

Ekintza Planeko konpromisoen artean batzuek erantzun bat eman behar diete OGPK **konpromiso nagusi** deritzen horiei.

Konpromiso nagusiak dira OGPKk eredugarritzat jotzen dituenak. Konpromisoek izaera hori izan dezaten, hainbat baldintza bete beharko dituzte:

- Zehaztasun nahikoa izan beharko dute, izango duten eraginaren gaineko balorazioa egin ahal izateko. Konpromiso nagusien zehaztasun-maila “ertaina” edo “altua” izan beharko da.
- Konpromisoak argi eta garbi adierazi behar du gobernuan irekierarako duen garrantzia. Gobernu Irekirako Aliantzako balioetako gutxienez batekin lotuta egon beharko da. Balioak

honako hauek dira, zehazki: informazioa eskuratzea, partaidetza publikoa edo kontu-ematea.

- Ezarriz gero, konpromisoak eragin “eraldatzailea” izango luke.
- Azkenik, aurrerapen esanguratsuak egon beharko dira ezartzen den aldian, eta “nabarmen” edo “erabat” kalifikazioa izan beharko du.

ERANSKINA – OGP-REN KONPROMISOEN ADIBIDEAK

OGPren tokiko programaren arduradunak ekintza-planaren bi adibide aipatu zituen, gure planerako erreferente izan daitezkeelakoan (izaera lankidea, erakundeen arteko kooperazioa, eta abar).

Buenos Aires eta Austin-eko ekintza-planen arabera, eduki-patroi bati jarraikiz, konpromisoak aurkezteko modua ezberdina izan daiteke, horiek egiteko prozesuaren ondorioz.

1. ADIBIDEA – BUENOS AIRES

Estatu irekiaren paradigmen arabera, Buenos Aireseko planak estatuaren hiru botereak (exekutiboa, legegilea eta judiziala) batzen ditu, eta ekintza publikoa herritarrekin batera sortzeko eta esperientziak partekatzeko orduan aurrera egitea du xede.

https://www.opengovpartnership.org/sites/default/files/Buenos_Aires_Subnational_Action-Plan20161201_0.pdf

Mahai sektorial publiko eta pribatuen bidez landu zituzten konpromisoak, “adostasuna eta azterketa” oinarri. **OGPren ekintza-planen egitura “klasikoa” jarraitzen dute:**

2. KONPROMISOA - Koordinazioa estatu ireki batean datuak ekoitzi eta argitaratzeko orduan

Hasteko, konpromisoa nork gidatzen duen eta norekin lankidetzan ezartzen den azpimarratzen du

| | | |
|--|--|--|
| <p>Nombre e información de contacto de la Secretaría/ Ministerio responsable:</p> | | <p>Matías Zubiría. Dirección General de Innovación y Gobierno Abierto. Ministerio de Modernización, Innovación y Tecnología. mzubiria@buenosaires.gob.ar</p> <p>Silke Arndt. Dirección General de Fortalecimiento Institucional y Modernización Legislativa. silke.arndt@legislatura.gov.ar</p> <p>Mariano Heller. Secretaría de Planificación del Consejo de la Magistratura de la Ciudad de Buenos Aires. meheller@jusbares.gov.ar</p> <p>Adela Pinzón. Área de Comunicación. Tribunal Superior de Justicia de la Ciudad A. de Buenos Aires. apinzon@tsjbares.gov.ar</p> |
| <p>Otros actores involucrados</p> | <p>Gobierno</p> | <p>En diciembre de 2016 se conformará un comité con representantes de cada uno de los poderes del Estado que se encuentren trabajando en áreas de apertura de información y participación ciudadana, así como también con los representantes de las organizaciones de sociedad civil que conforman la Mesa de Trabajo (MT) de OGP en Buenos Aires. En ese mismo mes se co-creará la metodología de trabajo y el cronograma de encuentros. Este espacio se llamará Mesa de Coordinación.</p> |
| | <p>Sociedad Civil, Sector Privado</p> | |

Konpondu nahi den arazoaren testuingurua eta helburu nagusia azaltzen ditu

| | |
|--|---|
| Status quo o problema/tema que se quiere resolver | Gran cantidad de información y datos son manejados y generados de forma continua por cada uno de los poderes del Estado. Hasta el momento, la interoperabilidad entre esos recursos informativos es limitada. Una de las causas más relevantes es (a) la Falta de estándares compartidos para el registro, normalización y publicación de los datos, (b) la ausencia de un catálogo de información que necesitan compartir los poderes entre sí y (c) la Falta de espacios institucionales de colaboración. |
| Objetivo principal | Mejorar la interoperabilidad de la información que comparten los tres poderes a través de la creación de una instancia permanente de coordinación y colaboración. Se espera que el mecanismo conduzca a (a) un uso más eficiente de los recursos públicos; (b) mejora en la prestación de servicios y desempeño de procesos y (c) mejora en los niveles de transparencia en los tres poderes del Estado. |

Konpromisoa zein den eta OGP balioetan zein ekarpen egiten duen deskribatzen du

| | |
|---|--|
| Breve descripción del compromiso | Mejora en la coordinación en la producción, intercambio y publicación de datos e información entre los tres poderes del Estado. |
| Describe la manera en la que el compromiso contribuye a fortalecer los valores OGP de transparencia y acceso a la información, rendición de cuentas públicas, participación cívica, y tecnología e innovación para la apertura y rendición de cuentas. | Muchos de los esfuerzos adelantados en el marco de OGP hasta la fecha se han concentrado en el Poder Ejecutivo. Sin embargo, el camino hacia un verdadero Estado Abierto requiere de un diálogo constante e instancias de coordinación entre los tres poderes del Estado. Desde este punto de vista, la creación de una mesa de coordinación ofrecería un espacio para responder a ambas necesidades. Por un lado, permitiría la coordinación entre los tres poderes del Estado, lo que redundaría en una mayor eficiencia en la inversión de los Fondos públicos, mejora de procesos y optimización de tareas. Por el otro, generaría un canal permanente de participación de la sociedad civil que canalizaría demandas ciudadanas para mejorar la cantidad, calidad y tipo de información que se produce y se comparte. |

Eta, azkenik, xedeak (3) aipatzen ditu, honako hauek zehaztuta: konpromiso berria den edo lehendik dagoen martxan, noiz hasi(ko) den eta noiz amaituko den.

| Hitos, metas preliminares y Finales que permitan verificar el cumplimiento del compromiso | Compromiso en curso o nuevo | Fecha de inicio: | Fecha Final: |
|---|------------------------------------|-------------------------|---------------------|
| 1. Realizar un diagnóstico de los datos e información que los poderes comparten entre sí y/o recaban de los demás, en el ejercicio de sus funciones [1]. Este diagnóstico debe (a) identificar al menos 5 datasets a recabar, producir o construir; (b) producir un calendario de publicación y (c) generar una lista de información prioritaria a compartir y/o publicar | Nuevo | Enero 2017 | Marzo 2017 |

| Hitos, metas preliminares y Finales que permitan verificar el cumplimiento del compromiso | Compromiso en curso o nuevo | Fecha de inicio: | Fecha Final: |
|---|-----------------------------|------------------|----------------|
| 2. Desarrollar estándares para la homogeneización de la producción, sistematización y publicación de datos e información en los 3 poderes. Se trabajará sobre al menos 10 variables que permitan unificar los criterios con los que los Estados producen información, la almacenan y la publican. | Nuevo | Abril 2017 | Junio 2017 |
| 3. Crear un mecanismo que permita capturar las necesidades de la ciudadanía en términos de datos, con el objetivo de crear un canal de diálogo e interacción con otras organizaciones y/o ciudadanos no miembros de la MT de OGP. Este mecanismo será creado por la Mesa de Coordinación | Nuevo | Julio 2017 | Noviembre 2017 |

2. ADIBIDEA – AUSTIN

Austineko gobernuak gizarte-desberdintasunak jorratzea du xede, eta, horretarako, gobernu irekia garatzen du:

https://www.opengovpartnership.org/sites/default/files/Austin_Subnational_ActionPlan2016_1201.pdf

Bere konpromisoak egituratzeko, arazoak eta galderak planteatzen ditu (plana ezarri aurreko erkidego-prozesu baten emaitza direnak), eta gizarte zibileko erakundeekin lankidetzaz bizi aritzen da.

Konpromisoak modu ez hain tradizionalen antolatzen ditu OGPren planetan:

2. KONPROMISOA – Parekidetasuna ebaluatzeko tresna

Lehenik eta behin, beti azaltzen du bere helburuaren eta OGP balioen arteko lotura

Austineko erkidegoko kide guztientzat emaitza parekideak lortzeko helburuan aurrera egiteko, partaidetza zibikoarekiko, gardentasunarekiko eta erantzukizunarekiko konpromisoa sustatzen dugu. Horretarako, parekidetasuna ebaluatuko duen tresna bat ezarriko dugu, erabakiak oinarri sendoen arabera har daitezkeen eta prozesua helburu kritikoak lortzeko bideratu dadin.

Ondoren, labur azaltzen du zein den konpromiso honen jatorria: modu partaidean identifikatutako beharrez bat

Deskribapen laburra: parekidetasuna ebaluatzeko tresna bat ezartzea.

Proiektuaren laburpena: Gizarte zibileko gure lankideetako batek planteatutako arazoari ematen dio erantzuna proiektu honek: Nola gara genezake parekidetasuna ebaluatzeko tresna bat, Austin osoan emaitza parekideak ahalbidetuko dituzten erabakiak gidatzeko? – Spirit of East Austin erkidego-ekitaldian egindako galdera.

Jarraian, lortu nahi diren emaitzak eta emaitza horiek lortzeko erantzun behar diren galderak aipatzen dira

Lortu nahi diren eraginak

1. Hiriaren praktikek eta politikek parekidetasunean duten eragina ulertu eta ebaluatzea
2. Hiriko sailei eta jendeari aukera ematea parekidetasuna ebaluatzeko tresna bat erabil dezaten, aurrekontu-prozesuan zehar eta urte osoan, hirian parekidetasunaren erronkak ebaluatu eta jorratzeko
3. Diru-sarrera urriak dituzten erkidego askoren bizi-kalitatean eragina duten askotariko gizarte-baldintzen artean desberdintasun nabarmenak jorratzea. Desberdintasun horiek bereziki desproporzionatuak dira erkidego beltzen artean

Azterketarako galderak:

1. Nor ari da dagoeneko lanean berdintasuna lortzeko?
2. Nola bil zenitzake hiritik kanpo berdintasunaren alde lan egiten ari diren agenteen datu kualitatiboak?
3. Nola erabil ditzakegu Gobernuaren Aliantzaren datuak parekidetasuna eta arraza ebaluatzeko?
4. Nola iker dezakegu esleitutako aurrekontuaren historia eta esleipenen historia sailen eta programen arabera?
5. (...)

Eta, azkenik, prozesuren xedeak, faseak (epe eta guzti) eta abar zehazten dira

Kontzeptuak argitzeko fasea: 2016ko abendua – 2017ko otsaila

- Equity Visioning Session ekitaldia
- Erkidegoaren feedback-aren laburpena

Plana garatzeko fasea: 2017ko otsaila – 2017ko apirila

- Parekidetasunean oinarritutako sistemarako esparrua / parametroak
- Inguruaren egoerari eta alderdi interesdunak esparruarekin lerrokatzeko moduari (barruan nahiz kanpoan) buruzko txostena

Prototipoak ezarri eta testak egiteko fasea: 2017ko apirila - 2017ko maiatza

- Sailen barruan helburu zehatzak identifikatzea, hiriaren 2017-18ko aurrekontu-ziklorako tresna piloturako

Eraikitze-fasea: 2017ko maiatza - 2017ko abuztua

- Parekidetasunean oinarritutako aurrekontuak, hautatutako sailetarako
- Parekidetasunean oinarritutako aurrekontuen lehen txanda, 2017an ezarria